

Maitasunak urratzen nau

Iratxe Esnaola Aldanondo

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2008



Zumaiko Udala

*enkar
txanpu*



Maitasunak urratzen nau

Iratxe Esnaola Aldanondo

Julene Azpeitia 21. ipuin lehiaketa

2008

2. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Iratxe Esnaola Aldanondo (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Baineran etzanda nengoen erabat erlaxaturik. Ura leporaino iristen zitzaidan eta azkazalak mozten nituen abesti melenga bat kantatu bitartean, irratietan modan zebilena. Hura kantatzen nuen begiak itxiz, nire ahotsari ez zihoakion tonuan, hala-holako zalaparta sortuaz. Horretan, ziztada zorrotz bat sentitu nuen eskuko hatz lodian. Berehala artaziek egindako ebakitik odol zorrotada hasi zen urak gorritzen. Ebaki inozoa zirudien, bi zentimetro doikoa, baina ikaratu egin nintzen isuria ikusita.

Baineratik irten gabe konketa gainean utzia nuen sakelako telefonora luzatu nuen eskua. Larriturik, urgentzietako zenbakia markatu nuen itsu-itsuan, zenbat botoi zapaltzen nituen ere jabetu gabe.

—Larrialdiak, mesedez? —galdetu nuen ahal bezain irmo.

Ahots leun eta eder bat entzun zen bestaldean. Gizon erakargarri baten ahotsa zirudien.

—Larrialdia, esan duzu? —esan zuen ahotsak.

—Hatza. Artaziekin ebaki dut. Odol asko ari da botatzen. Mesedez. Maleiner kalean nago, 5. eskuinean.

—Badut ezagun bat Maleiner kalean —gogoetatsu zirudien eta oso mantso hitz egiten zuen bestaldekoak—. Doktorea da bera. Ezagutzen ote duzu?

Nahasmenen bat bazela sumatu nuen. Eta ez txikia.

—Larrialdi zerbitzua al da? —errepikatu nuen beste behin.

Isiltasuna egin zen hariaren bestaldean.

—Bidaliko al zenuke lehenbailehen ambulanti bat hona?

Isilik mantendu zen. Ondoren, edukazio txarrekoa iruditu zitzaidan zerbait gehitu zuen.

—Larunbat iluntzea da. Errepideak gainezka izango dira.

Odola bainerako hormak gorritzen ari zen. Ur xaboiuak zenbait iluntze sugarren kolorea hartu zuen. Beldur nintzen komunikazio hura eten eta beste inora deitzeko indarrrik gabe aurkituko ote nintzen. Uneko urduritasunean zenbakiaz ere ez nintzen akordatzen.

—Larrialdi zerbitzua da edo ez da —saiatu nintzen atzera ere, tonua baldartuz.

Baina nire ahotsak ez zirudien nirea bat-batean. Ahula zen, zorrotza eta eskasa. Irratietan modako abestia kantatzen zuenaren antza zuen.

—Ez, ez da —esan zuen azkenean ahotsak.

—Hara bada !—harritu nintzen—. Erratu egin naiz. Egin faborea eta deitu urgentzietara.

Isilune berri bat izan zen hariaren bestaldean, luze samarra.

—Bada inor hor?

Zaratatxo batzuk aditu ziren.

—Emaztea daukat deika —eskusatu zen—. Beste uneren batean izan beharko du.

—Odolustu egingo naiz! —oihu egin nion—. Erraza da zeharo. Maleiner kalea, 5. eskuma.

—Urruti geratzen da nire auzunetik.

—Dei ezazu ospitalera —pazientzia agortzear nuen.

—Atseginez egingo nuke.

Zalantza une bat izan zuen.

—Ez da erraza —esan zuen azkenik.

Erabateko gizatxar baten aurrean egon nintekeela ohartu eta adi ibiltzea erabaki nuen, nire arma guztiak erabiltzea. Ahots ezti bat bilatu nuen, goxoa, ematua esaten diotena.

—Odola baineratik gainezka ari da.

Ez zen egia baina irudi indartsua zen inor ikartzeko. Baineraren ertzetatik odola baldosetara erortzen irudikatzea.

—Gauza itsusia inondik ere —esan zuen gizonak.

—Hain zuzen —lagundu nion.

—Hara bada nik ...

Eta orduan, uste nuenean konbentzitua nuela behingoan, hark esan zuen:

—Hau da hau! Emaztea urdaiazpikoa moztera joateko deika.

Ez sinestekoa zen. Ezin zen ezelango burutan kabitu.

—Ezagutuko dituzu famili arteko afariak, gonbidatuak —esplikatu nahi izan zidan.

Garrasi egin beharrean aurkitu nintzen nire eskuari begiratu ondoren.

—Hemen hilko naiz norabait deitzen ez baduzu!

—Jainkoak ez dezala nahi halakorik! —larritu zen bera.

Falta zena. Kristau sinestun bat izan zitekeen. Gogo lauso sentitu arren, apur bat zorabiatua, adiago ibiltzeko agindu nion nire buruari. Bazitekeen hil ala biziko kontua izatea. Bere erruki kristaura iristen saiatu nintzen.

—Jainkoak lagun nazala —otoitu nuen.

Baina ez zen erantzunik izan. Aldentzen ziren pausoak entzun ziren eta telefonoa pausatu zuelako hotsa. Itolarria sentitu nuen. Eta baineran odolustuta hilko banintzen? Belarriak zorroztu nituen. Ez zen bestaldean festaren bat edo kristauen bestelako elkarketaren bat ospatzekoa zela sinestera eraman zezakeen soinurik.

—Lagun iezadazu —esan nion ezerezari.

Eta erantzun bat jaso nuen ezerezetik, zerutik emana bezala:

—Ez zen besterik faltako.

Gizona zen berriro eztarria garbitzen ari zena. Pixka bat itxaron zuen hizketan hasi baino lehen.

—Galdera bat dut ezertan hasi aurretik —aitortu zidan.

Ezbaian ari zen. Agerikoa zen.

—Kuxidade horrek suizidioarekin zerikusirik ba al du?

—Inolaz! —asaldatu nintzen.

—Zin egizu —agindu zuen seriotasunez.

—Pertsona zentzuduna naiz —argitu behar izan nion.

Nire gurasoek eta ezagunek ez zuketena hori defendatuko, baina garrantzitsuena gizon hark ni ere kristaua nintzela sinestea zen. Gauzak ondo zihoazela barruntatu nuen haren telefonoa eskuz aldatzen nabaritu nuenean. Soinutxo batzuk izan ziren, izozkiaren kukurutxoak hozkatzean bezalakoak.

—Bai? Nor? Esan?

Emakume ahots zorrotz bat zen hizketan. Desatsegin samarra belarriarentzat. Jarraian telefonoarekin borrokan sumatu nituen bi esku. Zalantzarik gabe senar-emazte erabatekoaren aurrean nengoan.

—Adiskide?

Gizona zen atzera, baina han nonbait emakumeak hizketan jarraitzen zuen. Nire indar ahulekin gizonari dei egiten zion maitalaren bat nintzela irudikatu nuen. Maitale mindu bat komeni ez zen orduan gizonaren etxera deika. Irri karkaila egin nuen.

—Berehala naiz zurekin —esan zuen berriz ere tipoak.

Baina hark ez zirudien motzerako kontua. Emakumeak une batez desagertua zirudien arren telefonoaren erradiotik, urrutiagotik bere ahotsa entzuten zen ozen, kantuan eta zirikan, iruditu zitzaidan.

—“Maitasunak urratzen nau... .. maitasunak hiltzen nau...” —kantatu zuen.

Hura zen kontua! Hatza ebaki nuen unean abesten nuen kanta berbera zen! Baina bere ahotsean nirean baino are okerrago ematen zuen. Konturatu nintzen edaten ibilia behar zuela izan andre hark. Edandako norbaiten ahotsa zen, hitzak geldo zihoazen, goroldio umeletan bezala. Gero zenbait gertakizun zaratatsu izan zen han, zeinek ondorio bezala ekarri zuten emakumeak telefonoa eskuratzea.

—Deitu anbulantzia bat i—aprobetxatu nuen instantean.

—Anbulantzia?

—Odolusten ari naiz andrea...

Badaezpadako isilune bat egin zuen, egiatan isiltasunetik asko ez zuena bere arnas hotsa zela medio, baina zentzuzko zerbaite esan zezakeela pentsatu nuen hainbeste denboraren ondoren. Orduan esan zion senarrari:

—Zure maitalea al da?

Mundua gainbeheran zihoan. Ez zen zalantzarik. Eta hura hiriko etxebizitza bakar bat zen. Zenbat eta zer nolako jendeak habitatzen zuen hondamendiko mundu hau. Andreak barre zorrotz bat egin zuen bere baitarako. Eroska, joana zirudien. Orduan aurreneko aldiz senarraren ahots leun eta eder hura zakartu egin zen. Ulu moduko batzuk egin zizkion, hitz elkarketa ordenatuekin antzik ez zutenak.

Bien bitartean, odolak nire bainerako urak tindatzen jarraitzen zuen eta beldur nintzen ahuldade erabatekoak jo eta telefonoa uretara eroriko ote zitzaidan. Edozer egiteko, behe-beheraino jaitsi eta arrastatzeko prest nengoen. Jende harekin komunikazioa berreskuratu nahian aurkitu nuen nire burua. Esfortzu handi hartan uste dut hasi nintzela burua galtzen, nik erabaki gabe, bere gisara, modako kantu melenga irten baitzen nire ezpain artetik:

—“Maitasunak urratzen nau... .. Maitasunak hiltzen nau...” .

Instantean andrearen erantzuna heldu zen oihukatuz bera zela maitasunak kaltetutako bakarra, harik eta zerbaitek gehiago hitz egitea eragotzi zion arte, senarraren eskuak ahoa estaliz, nik uste. Ondoren ate hotsa aditu zen. Justu orduan bainuko hormak tolesten eta urtzen ikusi nituen eta jakin nuen nire azkena zela. Gizonaren ahotsa urrutiko zurrunbilo bihurtu zen. Azkenean, garrasi sail luze bati esker, telefonoz bestaldeko hark eginak, esnatze halako bat izan nuen eta bainuaren eta nire buruaren kontzientzia berreskuratu nituen. Telefonoa belarriaren eta lepoaren artean nuen artean. Zerbaite errepikatzen zidan gizonak bere onetik irtenda.

—Estali zauria! Estali zauria! —oihukatzen zuen.

Hain zuzen konketako esku toalla han zegoen nire zain. Hartu eta hatzaren jiran bildu nuen. Puska baterako bazirudien isurtzeari utzi behar ziola ebakiak. Indarrik gabe, ez nekien zer egin lagun ziezadaten.

—Azkenetan nago —esan nuen.

—Ez da hainbesterako —erantzun zuen tipoak baina derrepentean ahots zakar hura nirekin erabili izanaz damutu zen. Ez nion ezer leporatuko. Batek daki zer egin izango nukeen nik ezezagun batek nire etxera laguntza eske deitu izan balu.

Jarraian negar zotin txiki batek ihes egin zion. Argi asko aditu nuen. Konturatu nintzen tristezia handiren batek jana zuela. Ez nuen ohiturarik inori laguntzen ibiltzeko. Hala ere, nire egoera tamalgarriagatik, nik uste, zerbait gizatiarra bilatu nuen.

—Zer duzu —esan nion.

—Zoritxarrak kolpatu nau —erantzun zuen.

Bere bihotza bihotz operazio batean bezala zabaldu nahi zidan.

—Zerri bat naiz. Emaztea penaz akabatu dut —deklaratu zuen.

Hura al zen dena, pentsatu nuen. Argi zegoen. Maitaleren bat tarteko etorkizunik ez zuen bikote bat etorkizunik ez zuela ohartua zen. Orain emaztea edanari emanda zebilen eta senarra errudun, alderrai, zakur bat bezala.

—Jakingo bazenu... —esan zuen.

Baina nik banekien. Mundu guztiak zekien. Nola ez jakin.

Puska batean hizketan jarrai zezan utzi nion. Bai, pentsatu nuen nire kautan. Gizona zeharo hunkitua eta belaxkatua zegoen. Une sentimental hura probestu behar nuen.

—Deitu anbulantzia bati —eskatu nion.

Eta mindu egin zen bere intimitatea profanatu banu bezala. Eta arnasa zezenak bezala hartu zuen eta telefonoa esekitzeko zorian izan zen.

Handik gutxira emaztea hurbildu zen aurikularrera. Hura gauzak nahasten hasi aurretik harrapatu nahi izan nuen.

—Deitu larrialdietara! —erregutu nion—. Maleiner kalean nago, 5. eskuma.

—Badut ezagun bat Maleiner kalean. Doktorea bera— esan zuen oso aspaldiko norbaitez ari balitz bezala.

Beraz, hasieran bezala nengoen baina zenbait odol zentilitro gutxiagorekin. Emaztea bere senarraren maitalea nintzela erabakita zegoen.

—Ez didazu ebakiarena sartuko —esan zuen maltzurki.

Gozamenez hitz egin zuen, hitz bakoitza bere barruan ondo zebatur balu bezala aspalditik eta plazera sentituko balu bezala haiek esatean. Ezin nuen ideia bat osatu emakumearen osasun mentalaz. Hitz egin zezan utzi nion hari ere.

—Ez zara bakarra —esan zuen—. Alde batera utziko zaitu laster.

Zangada hotsa entzun zen bere eztarrian behera. Tarte bat uzten zuen trago baten eta hurrengoaren artean. Gero korrokada bat egin zuen, hain justu nire belarrira zuzendua. Munduari logika halako bat aurkitu nahi nion.

—Ez naiz inoren maitalea —espikatu nion.

Hura ere ez zuten defendatuko ez nire ezagunek ezta nire familiak ere, baina andre hari zegokionean eta nire partetik egiazat har zitekeen.

Tonu jarrai batzuk aditu nituen orduan aurikularrean, adierazten zutenak haien telefonora beste baten bat ere deika ari zela. Ez dakit zein hatzek botoi bat sakatu zuen eta linea monotono batekin utzi ninduen, jokoz kanpo. Erdi leloturik aurkitu nintzen. Kantuan hasi nintzen konturatu gabe, mozkorturik etxeratu banintz bezala. Maitasunaren gaineko kantu pastel hura abestu nuen nire borondatearen kontra. Barre egitekoa zen. Maitasuna eta hura guztia. Telefonoz bestaldekoak begiratzea besterik ez zegoen. Eta gero beti zegoen okerragora joatea. Seme-alabak edukitzeko ohitura errotua bizi-bizi zegoen artean.

Noizbait hariaren bestaldetik bizi seinaleak heldu ziren eta nigana zuzendu zen ahotsa.

—Monron doktorea genuen telefonoan —esan zidan andreak.

Monron inoren benetako izena izan al zitekeen barruntatu nuen.

—Maleiner kalean bizi da Monron doktorea —argitu zidan gero hitzak ondoegi ahoskatuz.

Tarte bat egin zuen, nik betetzen lagundu ez niona eta trago batekin ordezkatu zuena. Nire ustean ezinezkoa zen une hartan doktore hark euren etxera deitu izana. Kasualitatea izango zen bada! Andrea ni izorratu nahian zebilen. Hain zuzen, bota zidan:

—Doktorea ez da txortarako —eta barre egin zuen, zaldi irrintzia bezalakoa izan zen barrea.

Orduan norabait joan zen joaten den bezala bat ezkutatzeraz eta bakarrik utzi ninduen. Isiltasuna nagusitu zen. Ez neukan argi senarrak artean bertan al zirauen. Hatzeko toalla odoleztatua zegoela ohartu nintzen eta isuriak ez zuela geratzeko itxurarik. Eta hala ere bizi egin nahi nuen. Munduak modu ero hartan biratu arren bizitzen jarraitu nahi nuen. Senarrari deika hasi nintzen. Hura zen nire itxaropen bakarra. Behin eta berriz egin nuen hark aurikularra hartu zuen arte.

—Monron doktoreak deitu digu —esan zuen berak ere.

Pikutara bidali nuen nahiz bera ez zen mindu. Barre jator batek ihes egin zion. Bere ahotsaren ederraz jabetu nintzen atzera ere. Pena zen kristaua izatea eta ni egoera hartan ezagutu izana.

—Zure helbidea eman diogu doktoreari —segitzen zuen hizketan. Tarte bat egin zuen bere keinuaren eskuzabaltasunaz ohartzeko denbora izan nezan.

Nitaz desegiteko trikimailua zen, zalantzarik ez.

—Jainkoak ez dizu barkatuko —bota nion bi aldiz pentsatu gabe.

Atera zituen zaratengatik —telefono inguruko trasteren bat jo eta lurrera bultza zuen— barru-barruan ukitu nuela jakin nuen. Zerbait esatera zihoan baina gauza bitxia gertatu zen orduan. Nire etxeko ateaz oroitu nintzen. Eta medikua benetakoa baldin bazen? Hura zen kontua! Nork zabalduko zion atea hari! Inondik inora ez nuen baineratik irtetea lortuko. Ondotxo nekien hura. Sekula ez nintzen heriotzatik hain hurbil izan. Telefonoz bestaldeko jende hura ez zegoen ondo burutik. Edo, beharbada, oso bizkorrak ziren eta jendea

torturatzea atsegin zuten. Maitasuna deitzen zioten haren ondorioak izango ziren, inondik ere.

Atea zabaltzearen arazo txikia argitu beharrean nengoen. Detektibe bizkor batek audientzia lerdo eta begi zabal baten aurrean bezala, nazkagarriki mantso, urratsez urrats kontatu nion nola batek odolusten denean ezin duen txabusina jantzi, pasilloa zeharkatu eta atea irribarretsu zabaldu. Duda-mudan sentitu nuen gizona. Bere akatsaz ohartua zela eta nahiko behea jota zegoela iruditu zitzaidan berrekin nion.

—Nahiago nuke anbulantziari hots egingo bazenio.

Arrapaladan erantzun zuen.

—Nahiago nituzke nik beste gauza asko.

Baina ni ez nintzen geldoago ibili. Sentitu nuen, errebelazio bat bezala, nahiago zituen gauzetako bat banuela nik. Alderik alde aldatu nuen ahots tonua.

—Emakume ederra naiz —bota nion, ez bat ez bi.

Isiltasuna egin zen bestaldean.

—Zita bat egingo dugu nire etxean —xuxurlatu nion bero-bero.

Zezenaren arnas modukoa egiten hasi zen.

—Zure emaztearen ezkutuan lagundu nion pixka bat gehiago.

(Behin hartara jarrita, banuen gizon harekin zerbait egitea.)

—Zergatik ez zatoz Maleiner kalera? —gonbidatu nuen azkenean.

Baina hasperen luze eta tristea egin zuen eta bazirudien hasperen hark mila urte zituela.

—Monron doktorea da joatekoa —esan zuen sano-sano.

Gorputzean geratzen zitzaidan odol apurra borborka sentitu nuen. Nire buruari eusten saiatu nintzen hatz jirako toallari eusten nion bezala. Isiltasuna geroz eta astunagoa zen.

—Zatoz hona —erregutu nion.

Baina hark esan zuen:

—Nire emaztea...

Eta emaztea aipatzea eta hura berriro telefonora hurreratzen sumatzea dena bat izan zen. Ahalik arinen gastatu nuen nire munizioko azken kartutxoa oihukatu nionean:

—Txortan egingo dizut nahi duzun modura!

Eta mundua buru gainera amildu zitzaidan, nik esaldi hura esaterako emazteak telefonoa eskuratua baitzuen eta belarri ondora eramana. Ez zuen iskanbilarik sortu bere mozkorra gorabehera. Bakarrik malezia sakon-sakon batez kantatu zuen:

—“Maitasunak urratzen nau... ..Maitasunak hiltzen nau...”.

Eta telefonoa eseki zuen.